



BASAURIKO UDALA

LAN-POLTSA: ERAIKIN
PUBLIKOETAKO MANTENTZE-LANEN
ARDURADUNA

LEHENENGO ARIKETA
(TEORIKO-PRAKTIKOA)

2024-12-12

1. Honako hauetako zein da ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri, Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua arabera?
 - a. Nortasunaren garapena.
 - b. Gizabanakoaren duintasuna eta hari datxekion eskubide bortxaezinak.
 - c. Legea eta gainerako eskubideak errespetatzea.
 - d. Denak dira zuzenak.
2. Hauxe dio Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua:
 - a. Espainiar guztiek askatasun eta segurtasunerako eskubidea dute.
 - b. Espainiar adin nagusiko guztiek askatasun eta segurtasunerako eskubidea dute.
 - c. Gizabanako guztiek askatasun eta segurtasunerako eskubidea dute.
 - d. Pertsona juridiko guztiek askatasun eta segurtasunerako eskubidea dute.
3. Nori dagokio udalerrien gobernu eta administrazioa?
 - a. Udalari, zeina alkateak eta alkateordeak osatzen baitute.
 - b. Udalari, zeina alkateak eta Tokiko Gobernu Batzarrak osatzen baitute.
 - c. Udalari, zeina alkateak eta zinegotziek osatzen baitute.
 - d. Bat ere ez da zuzena.
4. Tokiko Gobernu Batzordea NAHITAEZKOA izango da:
 - a. 1.000 biztanletik gorako udalerrietan.
 - b. 2.500 biztanletik gorako udalerrietan.
 - c. 5.000 biztanletik gorako udalerrietan.
 - d. 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, haien Araudi Organikoak hala xedatzen badu eta Udalbatzak hala erabakitzen badu.
5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Legearen 2. artikulua arabera, lege horretan ezarritako obligazioak aplikatuko zaizkio:
 - a. Espainiako lurraldean dagoen edo jarduten duen pertsona juridiko orori.
 - b. Espainiako lurraldean dagoen edo jarduten duen pertsona fisiko edo juridiko orori.
 - c. Espainiako lurraldean dagoen edo jarduten duen pertsona fisiko orori.
 - d. Pertsona fisiko edo juridiko orori, dauden edo jarduten duten lurraldea edozein dela ere.
6. Tresna sanitarioak instalatzean, ez da beharrezkoa:
 - a. Instalatu ostean ondo funtzionatzen dutela egiaztatzea.
 - b. Horiek segurtatzea, erresistentzia ahalik eta handiena izan dezaten.
 - c. Torloju arruntak erabiltzea.
 - d. Horien estankotasuna egiaztatzea.
7. Arraspa iturgintzako tresna bat da, eta erabiltzen da:
 - a. Buru hexagonalak duten torloju berezi batzuk ateratzeko.
 - b. Beruna, eztainua eta egurra errebasatzeko.
 - c. Ez da iturgintzako tresna bat.
 - d. Burdina, kobrea edo brontzea ebakitzeko.
8. Zein da zuzena, tresnak zaintzeari dagokionez?
 - a. Gutxitan erabiltzen diren tresnen kasuan, komeni da herdoiltzearen aurkako neurriak hartzea. Adibidez: metalezko zatiei olio dentsoren bat ematea.
 - b. Gutxitan erabiltzen diren tresnen kasuan, ez da beharrezkoa inolako mantentze-lanik egitea: gutxi erabiltzen direnez, ez dira higatzen.
 - c. Egurrezko zatiak dituzten tresnen kasuan, hezetasunetik babesten dira produktu koipetsu bat emanda.
 - d. Oro har, tresnek ez dute inolako mantentze-lanik behar.

9. Iturriak:

- a. Gailu batzuk dira, hodian muturrean jartzen direnak, eta, eskuzko mugimenduen bitartez, ur-emia zuzendu eta kontrolatzen dutenak.
- b. Uraren hodi barruko iragatea erregulatzen dute.
- c. Besarkagailu bereziak dira, hodi-adarrak soldadurarik gabe egiteko aukera ematen dutenak.
- d. Zisternaren barruan dauden mekanismoak dira, haren hustea kontrolatzen dutenak.

10. Ahari-kolpea:

- a. Gertatzen da, normalean, hodi baten hasieran, hodi hori denbora luzez erabili gabe egon denean.
- b. Gertatzen da, normalean, hodiaren amaieran, hodi baten likido-zaina bat-batean gelditzen delako, txorrota azkar ixteagatik.
- c. Tenperaturak bat-batean aldatu eta hodiak hozten direnean gertatzen da.
- d. Gertatzen da instalazioak aire-bolak sortzen direlako.

11. Esan zein dagoen txarto, kobrezko eta burdinazko tutu-ebakitzailari dagokionez:

- a. Zerra-arkuak baino kalitate hobea lortzen du, tutuak ebakitzeari dagokionez.
- b. Aldatu ezin daitezkeen hortzez osatua dago.
- c. Hortza tutu batean sartu, eta, kirtena biratuta, hortza tutuaren neurriraino doitzen da.
- d. Kobrezko eta altzairuzko tutuak ebakitzen ditu.

12. Zen da tentsioaren ikurra?

- a. W.
- b. V.
- c. R.
- d. A.

13. Zein da potentzia neurtzeko unitatea?

- a. Ohm-a.
- b. Ampere-a.
- c. Voltio-a.
- d. Watt-a.

14. Barruko instalazioan eroale neutroa badago, honako kolore honekin identifikatuko da:

- a. Urdin argia.
- b. Beltza.
- c. Berdea-horia.
- d. Marroia.

15. Tungsteno-espinala, eta radoi-gas eta iodo kopuru bat biltzen dituen diametro txikiko eta tutu-itxurako anpoila batez osatutako lanparak dira:

- a. Goritasun-lanparak.
- b. Lanpara halogenoak.
- c. Deskarga-lanparak.
- d. Lanpara fluoreszenteak.

16. Giza-gorputzerako arriskutsua izan daitekeen intentsitatea duen korronea pasatzea ekiditen duten etengailu automatikoak dira:

- a. Etengailu magnetotermikoak.
- b. Etengailu diferentzialak.
- c. Fusibleak.
- d. Erreleak.

17. Zirkuitulaburrak gertatzen dira:
- Fase desberdin bi konektatzen direnean.
 - Fasea eta lurra konektatzen direnean.
 - Fasea eta neutroa konektatzen direnean.
 - a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
18. Zenbait motatako mailuak dituzu. Zein da zurgin-mailuaren berezitasuna?
- Esfera-formako burua du.
 - Mailu horzdun ere esaten zaio.
 - Buztan alakatua du.
 - Ez dauka buztanik: aho karratu bi dituen burua du.
19. Formoiak, erabileraren erabileraz, eraginkortasuna galtzen du, eta zorrotu behar da:
- Orriaren noranzkoan.
 - Zorrotzeko orriak 50-60 graduko angelua duela.
 - Harria linealki igurtzita.
 - Lehen aldiz zorrotzen bada, harri birakariekin.
20. Zer erabiliko zenuke lan oso delikatueterako, eta bakar-bakarrik egur bigunetan?
- Marketeria-zerra.
 - Zerrote puntaduna.
 - Inguratzeko zerra.
 - Zerrote bizkarduna.
21. Gainazal leuna eta akabera fina lortu nahi izanez gero, zein luzeratako ilea eduki behar du arrabolak?
- Laburra.
 - Ertaina.
 - Luzera.
 - Ilearen luzerak ez dauka eraginik akaberan.
22. Egurrezko leihoak margotzeko hautatutako brotxetako bat berria da eta ez du ondo korritzen gainazaletik. Zer egin behar zen, brotxa berri hori erabili aurretik?
- Disolbatzailearekin garbitu.
 - Zabalik dagoen margo-pote batean sartuta utzi, 12 orduz.
 - Uretan utzi, 12 orduz, gutxienez.
 - Trementina-esentzian sartuta utzi, 12 orduz.
23. Brotxakadak tenperatura altuen erruz sortzen direla esan ohi da. Egia da?
- Bai: tenperatura altuek margoa lurruntzen laguntzen dute.
 - Bai: tenperatura altuek disolbatzailea lurruntzen laguntzen dute.
 - Bai: tenperatura altuek euskarria uzkuritu, eta, ondorioz, brotxakadak sortzen dira.
 - Ez.
24. Galdara-gelako hormak igeltsuz babestuta daude. Zein da horma horietarako margo egokiena?
- Klorokautxuzko margoa.
 - Epoxi erretxinadun margoak.
 - Silikatuzko margoak.
 - Esmalte sintetikoa.
25. Udaletxetik ezkerrentz irteten zara eta Basozelai-Gaztelu ikastetxeraino igo nahi duzu. Arrapala mekanikoak hartzen dituzu. Zein da zeharkatuko duzun lehenengo kalea?
- Marcelino González.
 - Juan Ramón Jiménez.
 - Miguel de Unamuno.

- d. Marcelino Oreja.
26. Zein kaletan dago Pozokoetxe Kultur Etxea?
- a. Debarroa.
 - b. Arratia Ibarra.
 - c. Erronkari Ibarra.
 - d. Bidasoa Ibaia.
27. Zein barauts-mota erabiliko zenuke gurrari forma emateko?
- a. Danbor-barautsa.
 - b. Fresa-barautsa.
 - c. Hiru puntadun barautsa.
 - d. Irwin barautsa.
28. . Ez da erraza barautsetan mantentze-lanak egitea, eta gezurra da:
- a. Hobe dela lan hori aditu bati ematea.
 - b. Erabilitako aldeak berdin zorrozten ez badira, broka deskonpentsatu daitekeela.
 - c. Barrualdea karraka lau batez zorrozten dela.
 - d. Karraka triangeluarra erabil daitekeela bai kanpoaldean bai barrualdean.
29. Informazio-oharrak banatu nahi zaizkie udalerriko auzo-etxeko taldeei. hori dela eta, erabakitzen dute erabiltzaile bakoitzeko 2 kopia prestatzea. hiru talde daude: lehenengoak 16 lagun ditu; bigarrenak, lehenengo taldeak halako 3, eta, hirugarrenak, bigarren taldean dauden lagunen erdia. zenbat kopia egin beharko dira, guztira?
- a. 144.
 - b. 176.
 - c. 88.
 - d. 72.
30. Fotokopiagailu bateko «zoom» memoriak honako honekin du zerikusia:
- a. Fotokopiak egiteko abiadura
 - b. Kolorearen intentsitatea
 - c. Irudia txikitze eta handitzeko funtzioa
 - d. Grisen gamaren intentsitatea eta kontrastea
31. Eskubaloiko partidu batean, bete egin da kirol-pistaren edukiera. Pabiloiak bost ate berdin ditu. Hiru irekiz gero, ikusleak 15 minututan sartzen dira. Beraz, bost ateak irekiz gero, zenbat minutu behar izan dituzte?
- a. 25
 - b. 5
 - c. 9
 - d. 3
32. Noiz berrikusiko dira segurtasun-sokak?
- a. Sisteman erortzea gertatu denean baino ez.
 - b. 5 urterik behin.
 - c. Urtean behin, gutxienez.
 - d. Erabili behar diren bakoitzean.
33. Eskailerak bakar-bakarrik erabiliko dira:
- a. Ez dago mugarik.
 - b. Inguruabarrak direla-eta, ez dagokionean seguruagoak diren beste lan-ekipo batzuk erabiltzea.
 - c. 2 metro baino gutxiagoko altueretan.
 - d. Aldi berean, bi lagunek erabiliko dituzte, gehienez ere.
34. Bitarteko lagungarri batera tresnekin igo nahi izanez gero, nola eramango dira tresna horiek?

- a. Eskuan.
 - b. Poltsikoan.
 - c. Bandolera batean.
 - d. B eta C zuzenak dira.
35. Nola kenduko dugu hautsitako azuleju bat, aldamenekoak kaltetu gabe?
- a. Hautsitakoaren izkinetan joko dugu.
 - b. Leunki tiratuko dugu, sarjenta batekin.
 - c. Erdian joko dugu.
 - d. Paletarekin presioa egingo dugu.
36. Hormak, normalean, izango dira:
- a. Masa-hormigoizkoak edo hormigoi armatuzkoak.
 - b. Fabrikazkoak.
 - c. Harlangaitzezkoak.
 - d. Erantzun guztiak dira zuzenak.
37. Konglomeratzaileek beste material batzuk batzeko balio dute. Hiru konglomeratzaile-mota daude. Zeintzuk dira?
- a. Karea, igeltsua eta harea.
 - b. Porlana, legarra eta igeltsua.
 - c. Karea, igeltsua eta porlana.
 - d. Igeltsua, porlana eta harea.
38. Habeen —hau da, eraikin osoaren— pisu guztia eusten duen elementu bertikala da:
- a. Zutabea.
 - b. Giltzarria.
 - c. Horma.
 - d. Ateburua.
39. Zenbat punta ditu Torx bihurkin baten izarrak?
- a. 4.
 - b. 6.
 - c. 8.
 - d. 10
40. Zelan deitzen da serie bereko sarraila guztiak zabaltzen dituen giltza?
- a. Giltza adimenduna.
 - b. Giltza orokorra.
 - c. Segurtasun-giltza.
 - d. Gakordea.
41. Jarraian datozenen artean, zein ez da sarraila-mota bat?
- a. Landatzeko sarraila.
 - b. Ate-gaineko sarraila.
 - c. Sarraila hariztatua.
 - d. Segurtasun-sarraila.
42. Ate-multzoaren zein lekutan muntatu ohi da gontzaren arra?
- a. Atean.
 - b. Biraderan.
 - c. Juntura-estalkian.
 - d. Markoan.
43. Zein motatako ate edo leihoetan jartzen dira bandak edo gontzak?
- a. Lerragarrietan.
 - b. Zabukarrietan.
 - c. Altxagarrietan.
 - d. Gillotina-motakoetan.

44. Zinta baten bidez eragindako lama horizontalak dituzten pertsianetan, noiz itsati behar dugu pertsiana danborrera, funtzionatu dezan?
- a. Pertsiana arrabol birakarira itsatsita, eta leihoaren giden gainean erabat zabaldua dagoenean.
 - b. Pertsiana arrabol birakarira itsatsita, eta biraketa-ardatzean erabat bilduta dagoenean.
 - c. Pertsianaren zati bat danborrean bilduta, eta biraketa-ardatzaren gainean itsatsi gabe dagoenean.
 - d. Pertsiana biraketa-ardatzera itsasten dugunean, une horretan zabalik ala bilduta dagoen aintzat hartu gabe.
45. Zurezko, aluminiozko, burdinazko eta abarrezko ate eta/edo leihoek bestelako materialak behar dituzte bai termikoki bai zarataren aldetik hobeto isolatzeko. Isolatze-lan hori hobetzea lortzen dute:
- a. Gontz edo banda kopuruaren eta materiala estaltzen duen materialaren bitartez.
 - b. Beirazko gainazalaren eta beiraren kolorearen bitartez.
 - c. Beira-ganberaren eta gomazko junturen bitartez.
 - d. Materialaren lodieraren eta markoek dituzten ganberen bitartez.